

## **KONTROL MOZIOA,** **AGINTARIEN ESKU-DANTZA DELA ETA**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko uztailaren 20an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Garai bateko ohituren galerari aurre eginez, urtero Konstituzio plazan ipinitako lizarraren inguruan, Goizaldi taldeak "Zortzikoa" eta "Gizon Dantza" delakoak dantzatzatu izan ditu eta, besteak beste, esfortzu honi esker, dantza horiek bizirik daude gaur egun Donostian. "Gizon dantza" izenez ezagutu dena (gaur egun "Esku-dantza", emakumeek ere parte hartzen baitute) agintariek dantzantzen zuten plazan herriko festa nagusietan. Herri bateko ekitaldi herrikoi eta garrantzitsuena zen. Donostian 1700. urtean jada dantzantzen zuten. Eta tradizio hau XVIII. mendean galdu zen arren, gerora berreskuratu egin zuten.

2011etik, ohitura berreskuratuta, agintariek beraiek dantza egin dute herriaren aurrean. Aurten ere ekitaldia ekainaren 23an izan zen, 19:00etan, eta txalotzekoa da oraingo Udal Gobernuak ere tradizio honi heldu eta bultzada eman izana.

Festak jendartea kohesionatzeko tresna dira, gure ohiturak eta kultura transmititzeko gune eta une naturala. Bost urtez jarraian agintariek herriaren aurrean dantzatu dute, eta herriak txalotu egin ditu. 2011tik 2014ra ekitaldia normaltasun osoz garatu eta ospatu zen. Aurten, aldiz, udaltzain asko zeuden plaza inguruan, zein plazan bertan. Azken honi dagokionez, zehaztu behar da udaltzain batzuk dantza eremuan bertan zeudela; hesien barruko espazioan, alegia. Hasiara batean dantzarien jarduna ere oztopatu egin zuten, eta dantzarien beraien harridura eta kritikak jaso ditugu.

Ekitaldira jende ugari gerturatu zen arren, gertaera hau guztiz harrigarria eta ulertezina zaigu. Are eta gehiago, udaltzainen presentzia nabarmena kultura jardura garatu behar den espazioan bertan, talkan dago-eta esku-dantzak sinbolizatu nahi dituen agintarien arteko elkarlanarekin eta herriarekiko errespetuarekin.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

Datozen hilabeteotan kultura jarduera ugari garatuko dira bereziki kalean, eta ohiko egitarauari 2016ko programakoa ere gehituko zaio. Kontuan izan beharko da, batetik, egitarau batean zein bestean agintarien presentzia izango dela, parte hartze maila desberdinarekin. Eta, bestetik, horrez gain jarduera asko oso jendetsuak izango direla jakina da.

Ekainaren 23an ezagutu dugun segurtasun-eredua kultur jarduera batean jarraitu behar ez dena ulertuta, hauxe da gure **MOZIOA**:

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kultura jarduerak garatzen direnean behar duten eszena-eremua errespetatu dadila eta, ondorioz, ziurta dezala espazio horren barruan udaltzainak ez direla egongo.

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ziurta dezala hartu beharreko segurtasun neurriek ez dituztela kultur jardueraren garapena eta irudia kaltetuko.

Donostian, 2015eko uztailaren 24an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
**EH Bildu udal taldeko bozeramailea**